


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

229n. zenbakia
orrilla 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**ARMENTIA'KO PRUDENTZIO DEUNA
EUSKALDUN ARABARREN ZAINDARIA**

ERRAMU-ERENOTZA

— Erramu edo ereñotza misterioz inguratutako zugaitza da.

— Nundik ete datorkio misterio ori? Eta erriak dion errespetoa?

— Europatar arioen artekoa da. Andik etorri zitzaigun; baña nundik nora sortu ziran ainbeste siniskeri, erreñotza dala-ta?

— Baserri askok dabe ereñotza bere inguruan.

— Bai Santimamiñe'k berak be. Koba-zuloan dagoz geure aurrekoen zenbait marrazki eta margo oien aurrean egiten ebezan euren aztikeriak.

— Orregaitik egongo da Santimamiñe'ko mendia erreñotzez betea.

— Sorginkeriz eta siniskeri zaarrez...

— Orregaitik jasoko eben San Mames'en ermita-txoa leize-zuloaren aurrez-aurre: "San Mames / bart egin dot ames...".

— Eta mendi-tontorrean, beste bat: San Miel'ena, espiritu txar guztien kontrakoa.

— "San Juan gabean, etxe atarian egiten dan suan, erretzen dira aurreko urtean bedeinkatutako erramuak...". Alan dio esaera zaar batek.

— Eta, beste batek, antzeko: "Erramu egunaren besperan erretzen dira erramu zarrak. Ori, San Juan suak aurreratzea dala esan oi dute zaarrek...".

— Aizkorak tximisten aurka indarra ba' du Arri-arik onuntz, baña erramuak be bai: "Ekaitza sortzen danean, bi erramu orriekin gurutze bat egin eta bular gañean jarri...".

— "Erramu bedeinkatua sapaian edo tximiñi atzean gordetzen da; ekaitza sortzen danean, aldi bakoitzean, pittin bat erre bear da".

— "Erramu bedeinkatua ekaitz egunetan erretzeko, gorde oi da; ta erretzean, garrrik ateratzeke, erre bear da. Orretarako su-autsa botatzen zaio gañera, estaltzeko...".

— Ori da esaeraz!

— Badira geiago be: "Etxeko leioetan erramu gurutze txikiak ikusten dira, sorgiñen kontrakoak". "Gaitzetatik libratzeko gurutze txuriak (erramuzkoak) jar-tzen dituzte ate ta leioetan".

— Zaindari ona da.

— Etxeak eta soroak zaintzen ditu erramuak. Jentillen ereñotza erramu biurtu da. Arrezkero Erramu Egunean bedeinkatutako ereñotza erabiltzen da bai leio, bai ate, bai korta, bai etxe, bai baratz, bai soroe-tan, eurok bedeinkatu eta gaitzetik libratzeko.

— Ez dira gutxi.

— "Erramu egunean gurutze txiki mordoixkak eraman oi dira elizara bedeinkatzeko. Gurutze oien egu-

rra saatzezkoa izaten da. Baña gurutzean erramu ostoak jarri bear dira... Soro bakoitzeko iru gurutze...".

— Bai al da besterik?

— "011a-lokak, txitak okerrik gabe atera ditzan, arrautz azpian bi erramu osto jarri bear dira". "Eta, etxeari tellatu ematen zaionean be monttorra erramuakin egiten zan...".

ANES ARRINDA
Deba, martiak 11. 1998.

"ESANAK"

Alangoak dira, giza-mendez euren ikasleai Gizon Jakintsuak, zuur-itzen esakizun edo zuur-itzen itxuran irakatsiak. Gure Euskal Errian, eta zer-esanik ez gure gazteen artean, nortasunari hegira agertzen direnak.

* "Entzuten dakianak, ondo beteko dauz ardurak, here bearrezko ekintzan. Biotzak bakarrik emoten dausku alango adiontasuna".

* "Biotz-gogorreko gizona, barritsu baten antzera matxin-zale bakarrik izan leike".

"Zure izakeran, indardun izan nai ba dozu, zure esaeren egille izan zaite. Erakustekoak egizuz berbak: ez dagoalako indar aundiagoko izkillu, izkera baiño, ondo erabilten dakientzat".

"Izan zaitez zeure buruari dagokion neurrikoa".

* "Ez galdu sekula be zure ERRIA'ren zoriontasuna' eta sekula ez zaitez arduratu zure bereratasunagaitik. Zure eginkizunak zuzenak ba' dira, berez gaiñeratuko jatzu".

* "Ez abil adore barik; izan adi argiagoo, eta ikasi eragozpiden arazo batzuk baztartzten. Euroi aurrez-aurre eraso egiteaz, zauritu baiño ez az egingo. Ingu-ru egizak!, eta ikasi arerioen indarrak erabilten. Iña dan lez, biurkorra izan adi; bai ta, aizpikorren antzera gibel-aundi".

* "An urrinean!, jende parrastada amaitzen dan lekuan, beti dago AURPEGI EDER BAT niri begira". (CHRISTIAN JACQ 1996).

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1998 'ko EPAILLA'ren 5 'an

BARRIKETAN

Areinegun izan zan azkenez eguna. Uda guztian ezeze, udabarrian here, eguraldi txarrak izan dirala-ta, auxe eta bestea, burrukan urduri ibilli ondoren. "gripea" bera be, ez jakun irailan, ain zuzen be, agertu!

Gurean, etxekoren bat, ume bat uste, asi zan lenen-lenengoz eztarriko-miña ebala-ta, sukar eta guzti. Gero beste bateri naastu jakon. Beraz, ulertu gendun udea amaituta egoala. Oporrai amaiera emon bear orduan. Gaixoak osatzen asteko ordua zan. Jarabeak, antibiotikoak eta beste abar baten erretolikakin asi giñan.

—"Ez egizue etxetik urten, aizea dago-ta"— Onelako aolkuak emoterakoan baina, alperriko xamarrek zirala oartzen zan, ez ebelako, bai ume ala nagusi, etxetik urtetzeko, ondartzara joateko, ezta ezer egiteko gogo aundirik. Bearezkoa zan. osatu arte, zintzo-zintzo ibiltea.

Kontu-kontari jartzean, oindiño gogoan darabilt, umeak udea igaro-ta_ gugaz egon ziran azkenengo egunagaz.

Autobusetako geltokian gengoan autobusa urtetako orduaren zain, bertako, geltokiko jarleku luze baten jesarri giñanean.

"Ezkerretik eskumara asi eta onetara gengoan; 1. ⁹ Eider, 2n. Marta, 3n. Aitor eta ni (bere ondoan, Aitor'en ondoan) laugarrenez. Nire lekua bankuaren mutur-muturrean aurkitzen zan. Etzegoan, orduan, nire ondoan, ezkerreko aldean, jesarteko lekurik.

Ni ez nintzan orduan konturatu, baina, antza danez, Eider'en ondoan, —bankuaren beste puntan—, lagun baterako tokia bai egoala eta, orra nun, ni oartu nintzaneke, Eider'en ondoan, gure jarlekuko beste puntan, jesarrita ikusten dodan gizon mardul bat. Au barre-algaran eta herba-otsean gure neskatillak Eider eta Marta'gaz barriketa-txantxetan asia zan eta euren artean jarraitzen eban.

Ni, etxetik urten orduko ondo ikasita ipiñi neban Aitor, gure mutikoa, Eider'en nebea eta Marta'ren lengusua izanaz, eta gainera danetatik nagusia (bera Aitor 16 urtekoa da eta neskatotxuak 13 urtekoak dira), jagon edo zaindu egin bear ebazala neskatillak, ondo be ondo egin be, bera, Aitor gizona zalako eta iruretatik nagusia; bearleku on berezia eta garrantzitsuena zala-ta.

"Ni, bankuko punta baten nengoan jesarrita, eta ganorabako gizon on beste muturrean jarri zan, bada, Eider egoan lekuaren ondo-ondoan; beraz, andik naikoa urrun nengoan, zerbait entzun eta ikusi bai, baina ez ezer ulertzeko moduan antxe bertan zer egotzen zan. Ni nengoan tokitik, umeak ikusi baino ez neban besterik egiten.

Auxe zan nik ikusten nebana: Erdi-barreka neskatotxuak, begiak zabal-zabal jarririk, baita Aitortxu urduri, gero eta geiago jartzen egoala, zer esan eta zer egin ez ekiala. Jakiña, Aitor kezka egoan bere arrebea eta lengusiña zaintzea berak uste eban baiño zaillago izango zalakoaren ustean eta egoera menperatzea beretzat eziña zala ikusten eban.

"Gauzak olan egozala, asten da Aitor asarre neskatillai ingelezeraz berba egiten. Onetara etziralako ulertzen iku-

sita, jarraitzen da gero euzkeraz egiten... Azkenez, onetara ulertu zirala alkarregaz uste dot eta bere arazoa menperatu egitea lortu Aitor'ek.

Baleiteke Aitor'ek here buruari esaten utsola ia zer pentsatzen ete eban eta nor zan gizontzar a here lengusin eta arrebeari, berba-otsez eta barreka iñun diranak esaten asteko, ezezaguna izanda. Antxe egoan bera, euren (neskatillen) jagole eta salbatzaille gauzak bere lekuan jartzeko prest, here amamaren agindua betetzen, eta amamak-berak edo iñork ezer esan ez baleutso be, baekiela berak zer egin bear dan onelako egoera baten aurkitzen danean norbera.

Au gertatzen zan tokia, Alicante'ko autobusen geltokia zan eta aitaturiko iru lengusu-lengusiñak, bertatik, Alicante'tik Bilbao'ra joiazan, euren bakarririk, autobusez lenengoz euren bizitzan, aurretik amaika orduko bidaldia ebela-rik. Badakit Aitor eta neskatil biak, eurak here, txikiagoak izanda, egazkiñetan ibilliak dirala, batzutan udan (bakoitxa egazkin banatan, nunbait), Londres'era, edo, txartel bat bulargainean dindilizka eroiela zuzenbidea idatzita eta ^{oai} guztiak ondo argi imiñita. Baina osterora orreitan azafata bat dame zaintzaille eta ordu bete eta ez asko geiagoko bidaldia izaten da.

Dana dala, gure Aitor'ek argi eta garbi utzi gura izan eban gizon aren aurrean, nor zan antxe agintari edo nork agintzen eban antxe, eta izkuntza bitan (baiña ez gaztele-raz, ulertu ez egian), here abotsa edo iritzia entzunazo gura izan eutson, gizon aren, oartu eitean etzegoala here lengusin eta arrebeagaz txantxetan ibiltzerik.

"Amaika barre egin eben gero Marta'k eta Eider'ek, gizon arek esandakoagaz. Eider'eri batez be: "Tu eres la chica de tu edad más guapa que he visto en mi vida". Eta edonork esan leikio orixe ete dan berrogei edo berrogetamar urteko gizonak egin bear dutson barriketa amairu urteko umeari.

Eskerrak gizon on beste autobus batean sartu zala, baina olan eta guzti be, leiotik ateraten eban burua, guri irribarreka begira-begira geratuz, begiakaz umeak jan bea-rran, autobusak abialdia artzeko unea iritxi zan arte.

Ni, egia esan, bildur izan nintzan egoera bakan orretan eta aolku bat emoteko bearizenean aurkitzen nazala uste, edonori, umeak aratonat bialtzeko sasoi datorrenean, edo aukerea sortzean. Beti kontuz, gero. Gauza bat da gazte-txuei bakarnk ibiltzen irakastea edo askatasuna erabilten irakatsi. Gauza bat da askatasuna, beste bat norberen burua arriskuan jarri.

Adibide lez diñot, Aitor bera be egon dala Londres'en, aurtan, joan dan udean, esan gura dot Txorierrri-Ikastola'ko irakasleekin, ain zuzen, bertako ikastolako maixuak edo irakasleak eroanda. Londres'tik itzuli zanean, Sondika'ko egaztokian egoan jentearan jentear ia galdu egin gintzazan bertako geltokian. Badabil, ibilli be, orrenbeste gazte izkuntzak ikasten!!

PANTXIKA ANDEREA ETA MERKE-ALDIAK (1997 - 3N SARIA)

Pantxika eta Mañuel'ek berrogei ta geiago urte ezkondu zeramazkiten eta ez zuten ondorengorik izan. Biak donostiarrek ziralarik, Donosti'ko oitura zaarrak oso ongi zaintzen zituzten. Oso alkaturik bizi ziran eta gero ta geiago bata-bestearen laguntza-zen bearrean aurkitzen ziran, Pantxika'k esaten zuanez.

Ezkundu ezkerotik, San Sebastián eguneren bezperako apariaren ospakizuna, donostiar jatorren legea dalarik, biak bakarrik apari gozo-gozo batekin ospatzen zuten, apari-gai bereziena angulak izaten ziralarik.

Urteak aurrera zijoazten arabera, oiturak betetzeko apari-gai bereziena eskuratzera gero ta larriago gertatzen zitzairen, bada Mañuel jubilatua ezkerotik, batetik diru-etorria murrizten joan zitzairen, eta, bestetik urtetik-urtera janariak garetitzen ari zirela kontuan izanik, batez ere erriko zaindariaren bezperako aparitarako oitutzen diran txitxardiñen sal-neurria odeietaraiño igotzen joan zalako eta azken urtetako prezioa ordaintzea euren barruak onartzen ez zirelako, azken urteetan, lenengotik, libra baten ordeztareun gramon erosten asi ziran; urrengo urteetan, berriz, gem ta garestiago zeudelarik, irureun gramora jetxi zuten "razioa", eta urtez-urte ezin erosi alako sal-neurrira iritxi zalarik angulen balioa –senarrak esaten zuan bezala, "urrezko ariak ba-lira bezala ordaindu beam"–, azkenean, naiz oso samindurik, beste gauza askoz premiatsuak ba-zeuzkatela, adibidez, urtero KUTXA'ren laguntzakin Benidor'en egiten zuten egonaldia eta abar kontuan izanik, angulik ez jatea erabaki zuten:

Aipatutako bearrak kontuan izanik, illero, illaren aurrenean zar-saria jasotzen zutenean, euren ustez geroago bear izango zituzten arazoak ornitzeko onenbesteko bat ezartzen zuten Aurrezki-kutzako libreta berezi batean.

Gauzak orrela zeudelarik, aipatutako ospakizunaren eguna irixten zanean, aparia garai bertakoa baiño itunagoa gertatzen zan eta Pantxika'ri, here senarraren naigabea ikusirik, oso kezkatu ikusten bai-zuan

egun ortan, gero ta penagarriagoa egiten zitzaion gizonaren gutizia ezin bete al izatea. Urte batean iñoiz baiño urduriago zegoan senarra, agian azken egunetako izparringietan Donosti'ko gizarte-elkar-teetako berriak ematen ari ziralarik, danetan San Sebastian bezperako aparitarako gauzarik aipagarriena bezala, angulak aitatzen zituztelako... edo, bestetan baiño goibelako ikusten zan.

Urte artan, zaindariaren egunaren bezperan, goizean-goiz, Pantxika'k adimena argitzeko egokiera izan zuan. Ain zuzen ere senarrarantzat bear-bearrezkoak zituan jaka eta prakak erosteko zebillela, denda apain baten ate ondoan, atea noiz irikiko zai emakume asko zeuden eta bertaratu zanean ezagun batekin topo egin zuan, eta onek, gauzak merke-aldian zeudela eta egun artan, azkenengoa zalarik, balio zuten erdian salduko zituztela era guzietako arropak, jakin erazi zion. Ori entzunik, bi aldiz pentsatu gabe, KUTXA'ra joan eta gauza berezietako aurreratua zeukatenetik dirua atera eta zuzenean dendara urbidu zan.

Bere aurretik asko zeudelarik zai zegoan bitartean bera baitan onela oldozten zuan: "Gaur izango dut aukera nere senarraren gutizia, aspaldiko urteetan ezin egin izan duguna betetzeko. Orretarako, erosi bear nituan txaketa eta galtzak emen erosiz, naiko dirua aurreratuko dut libra bat angula erosteko, eta era ontan, angulak doanean gertatuko zaizkit eta era berean tiro batez bi txori ilko ditut".

Iru ordu luze zai egon ondoren, dendara sartzeko txanda iritxi zitzaionean, bat ikusi eta bestea ikusi azkenik beste iñork erosi nai izan ez zituanak zoko batean ikusi zituan, eta naiz eta kolorez eta joskeraz ez izan azken modakoak, beste aukerarik ez zeukalarik, erosi egin zituan.

Ondoren arrandegira joan eta kilo erdi bat txitxardin, beltzak, erosi eta etxeratu zanean, gizona kanpoan egurasten zebillelarik, leku ezkutu batean gorde zituan arropak eta baita angulak ere zapi zuri batean ongi tolestatuak.

Apaltzeko garaia iritsi zanean, lenengotik zurr-

putuna arraultzekin ongi atondua jan ondoren, gutxiena uste zuan zerbait erakutsi nai ziola eta une batean begiak itxita eukitzeko berak esan arte, agindu zion senarrari. Ezustekoa ez zan bakarra izango, baizik bi izango ziran, bata bestearen atzetik, geroago ikusiko dugunez.

Esan da egin, gordeta zeuzkan lekutik ekarri zituan eta mai gainean jarri zapi zurian bilduta zeuzkan angulak, eta, begiak iriki zituanean ikusten zuana ezin siñisturik geratu zan Manuel, eta alako batean, nundik asi ez zekielarik era ontan mintzatu zan gure gizona.

— "Baiña, benetako angulak buru ta guztikoak al dira", galdetu zuan, eta, "nola demontre moldatu zera urrezko-dirua balio duten arraitxoak etxeratzeko?".

Emazteak, legun-legun, emekiro, erantzun zion.

— "Zaude lasai eta patxara ederrean jan ditzagun, leenago oitura genuan bezala ain atsegiñak zaizkizun txitxardiñak, eta orrezaz gainera jakin ezazu debalde gertatu dirala".

— "Nola daiteke on orrela izatea garai ontan saltzen ari diran prezioa kontuan izanik?".

Emazteak, ikusirik zenbateraiñoko zirrara egin zion senarrari, bere ustez egokiera ezin ohea zala nolako erosketa egin zuan jakin erazteko, ano-ano onela erantzun zion.

— "Begira!, gaur goizean denda apain batean gauzak erdi-prezioan saltzen ari zirala jakin dut eta bertaratu, eta, zuretzako ain premiazko dituzun jaka eta galtzak erosi ditut, eta, erosketa ontan aurreratu dudanarekin, arropa oiek berak bi alako pagatu bear ko nituala beste denda batean kontuan izanik, libra bat txitxardin beltzak erosi ditut. Au da, beraz, gaurko miraria".

Biak, eskuz-esku, oso giro ederrean angulak jan zituzten eta akeita eta kopatxua artu ondoren, gizona bapo-bapo jarri zanean, here ustez bigarren ezustekoa agertzeko unerik egokiena zala iruditu zitzai- onean, naiz beldur pixka batekin, erosketa senarrari erakutsi zion.

Gizonak, berde antzeko kuadro aundiz ornitatak

txamarra eta teilla koloreko praka estuak ikusi zituanean mintxuria egiteko eran jarri zan eta kopatxoa trago batez usturik, orain berriz aurpegia gorri-gorri zuala, era ontan mintzatu zitzaion andreari.

— "Baiña Kontxesi, txaketa nabarmen onekin eta kolore ortako galtza estuekin, "jippi" baten antzera jantzita nere ezagun guzien parragarri ikusi nai al nauzu. Burutik naastu egin al zera, Pantxika?".

Emaztea prest zegoan erasoaldiarako, gutxi gorabeera erosketari era ortako arrera kaskarra egingo ziola bazekielako, baiña bent ere gertu zegoan itxurazko erantzun bat emateko, eta, astiro-astiro itz egiñez, onela mintzatu zitzaion:

— "Begira!, beste urteetan bezala aurten ere, Kutxa'ren laguntzarekin Benidor'era joango gera, eta an, galtza motzekin, makutsik eta sabel-zorroan zilborra agerian dutela gizonetzkoak, eta andrazkoak arropa ariñekin eta euren aragiak soiñekoetan kabitu eziñik kaleetan zear ibiltzen diran atzerritarren artean murgildurik, jantzi auekin kaleratzen zera- nean, iñor ez da arrituko eta era berean zu ere oituzten joango zera eta andik aurrera normalak iruditu- ko zaizkizu jantzi auek. Bestalde, aolkulariak beti, esaten ari zaizkigu ez diogula ezarri bear urteak gure bizitzari, alderantziz, bizia eman bear diegula urteei, eta ez zaartzeko gazte sentitzen jarraitu bear dugula. Aolku auei jarraituz itxurakoa da gure barrua gazte nabaritzeko kanpo aldetik ere gazte itxuran jantzi ta ibiltzea. Ez al zaizu ala iruditzen?".

Ez dakit nola bukatu zan arazoa, baiña emazteak, emakume izanik, gauza auerako begi-bista ezin ohea dutelako ez nintzake arrituko azkenean bere naiia lortuko zuela, emen, Donosti'n adiñeko bat baiño geiago ikusi izan bai-ditut Mañuel'eri erositako arropen antzekoekin, iñoren esamesei jaramonik egin gabe Kontxa'ko pasealeku zoragarrian patxara ederrean egurasten.

Izan ere, gure gaztarotik onera ainbeste aldaketan lekuko izan geralarik, zerk arrituko gaitu?

KORTAJARENA'tar ANDONI



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

BIZKAI'KO EUSKEREAREN AGOSKERAK

(1997-12-03)

Anatsaldeon, Jaun-Andreok:

Izkuntzak jaio, azi eta i] egiten dira norki bizien antzera, eta bizitza orretan bere aldakuntzak izaten dauz edozein izkuntzak, beste izaki hizien antzera. Aldakuntza orreik iturri asko daukez, baiña bi batez be gogoratuko doguz gaur.

Izkuntzaren barrutik sortzen dana da aldakuntza bat. Berba egiten dabenak eurak aldatzen dabe darabilen izkuntza, berbak esatea errezeagoa izan daiten. Orretaiako egiten dabez, beste itzaldi baten gogoratu doguzan lahurpenak, eta orretarako, baita agots lagunduen eta bakartien, bokalen eta konsonanteen, aldakuntzak.

Beste batzutan izkuntzaren aldakuntzak kanpotik datoz: Auzoko izkuntzan erabilten diran berbak sartzen dira edo auzoko izkuntzak dabezan joskerak norberaganatzen doguz. Gogoratu, esaterako, zenbat itz artu dauzan euskereak latine-tik (sola...) edo gogoratu gure idazle zarrak dauken joskeran zelako indarra daukan latinearen joskereak, esaterako Mogel'egan.

Gaurko itzaldi onetan barrutik Bizkai'ko euskereari sortzen jakozan aldakuntzak gogoratuko doguz, edo beste era batera esateko, bizkaitarrok gure euskerea errezeagoa izan daiten egiten doguzan aldakuntza ugariak eta sakonak.

Billatzen dogun erreztasun an. alegiña egitearen ekonomia-gaz alderatu dogu beste itzaldi baten. Eta orrelan da izan be. Esaterako, bakarti edo hokal idegiak (a, e, o) agoskatzeak alegin aundiagoa eskatzen dan itxiak (i, u) agoskatzeak baiño. Orregaitik gure hizkaiereak agots hakartiak itxitera joten dau. eta antzera jazoten da agots lagunduakaz be: I izkiaren ondoren dagozan agots lagunduak agogaiñeiatu egiten doguz, errezeago agoskatzeko, baiña goazen aurrera gauza guzti oneik zeaztuteko.

Ez uste izan aldakuntzak egitera jokera au geure-geurea danik, izkuntza geienak egiten dabez aldakuntzak, naiz diakronian naiz sinkronian, aldi baten toki ezbaridiñetan naiz aldi ezbaridiñetan. Esaterako latine-tik gazteleiara igarobidean egin dira aldakuntzak: Multum-muito-mutto-mucho.

Eta bakartiak eurak be berba guztietan ez dira bardin agoskatzen, inguruan diran izkiak curen ikutua izaten dabe, naiz ta sarritan gure belarriak olakorik zomatu ez. Esaterako á ez da bardiña anoo itzean eta artu itzean.

Aldakuntza oneik egiteko zioa izkuntzaren gozotasuna be izaten da sarritan. Zuek esan zein dan gozoagoa ta atsegingarriagoa esaldi hi oneitan: Nik_{jin} jütut eta nik jan joazat.

Bakartien aldakuntzak

Euskaldunok abots bakarti itxiak errezeago agoskatzen doguz zabalak baiño, eta orregaitik dauko euskereak agots hakartiak itxitera jokerea: bakarti itxiak ez dira iñoz zabal hiurtzen, baiña zabalak, itxiaren ondoren, heti biurtzen dira itxi: Egune esaten dogu, eta ez -guna. aurrean u itxia daukalako. Ain ugari agertzen dan jazokizun oneri metafonia dirausoe erdeldunak, naizta gauza bardiña izan ez. Gaztelera izi-

te on atzerantza egiten da eta gitxitan, verso-virsu, euskerea ostera, aurrerantza eguna itzean esan dogun lez.

Metafonia esango dautsagu agokaldirik agokaldira dan itxite orreri (Eun de hi) erriak (Fike. Gatiqe), baiña bizkaie-reak beste bakarti-itxite bat dauka ugariagoa eta erririk erri egiten dan aldakuntza: Etxea esaten da Arratia'n, etxie Durango-aldean eta Mungialderik erdian eta Bermeo'n, etxi, ostera Ondarroa'n. Eta or aurrerapen bat dago: Zarrena, gastan bank dagoana etxea da. harriena edo geien erabillia, gastatuta, etxi. Or ikusten dogu ha euskerearen aurrera-bidean onetara joango garala: etxea, etxia, etxie, etxi. Eta diñoe olako jauzi edo saltu bat egiteko 200 urte bear dauzala erriak.

Ez dago esan bearrik. -:~rabide on euskerea errezeagoa, alegin gitxiagogaz egitekoa izan daiten dala. Ez, gero, ikaste-ko errezeagoa, egiteko errezeagoa baiño.

Bakartien bikoteak be curen aldakuntza egiten dabe: gaur-geur, dautzu-deitsu. Zergaitik? á zabaletik u itxienera bide aundia dagoalako eta agoa gitxigo beartu bear da eu esateko, au esateko baiño.

Beste gauza arrigarri bat be aurkitzen dogu gure bizkaie-ran: besoa, kamiñoa, esaten dogu toki batzutan, baiña ez basoa (ontzia) edo panaderoa. Zergaitik edo noz 0 eta noz u? Euskerazko itzak eta erderatik antziña artuak ó zaintzen dabe, orregaitik besoa, kamiñoa, baiña oraintsu artutako itzak u artzen dabe: basua, panaderua. Dana dala bizkaiera aurreratuaq beti ue esatera eldu dira. Bermeo'n, esaterako besue, basue, panaderue ta kamiñue esaten dabe.

Lagundun agotsetan

Lagundun agotsetan be antzeko aldakuntzak ikusten doguz. Onetan aldakuntzarik geien dakarren izkia i da. Orrelan jazoten da latinetik gastelerara igarotzean be: it-itt-itx, id-idd-ij, il-ill, in-iñ, is-ix, iz-ix. Adibideak: Aita-aite-aitte-aitxe-atxa. Ada ez da iñon be esaten Bizkaia'n, euskaldun barriak izan ezik. Aite esaten da Arratia'n, aite Mungialdean zati baten, aitxe mungialdean beste zati baten eta Bermeo'n eta atxa Ondarroa'n.

Ondorenak

Agoskatzean egiten diran aldakuntza oneik Bizkai'ko euskerearentzat ondoren onak eta txarrak dabez.

Ondoren onen artean gure euskerearen gozotasuna gogoratu bear dogu. Gipuzkoa'koa baiño askoz gozoagoa da Bizkai'ko euskerea eta Bizkai guztiak agoskatzen dan agots oso gozo bat ezin dabe agoskatu giputzak. Guk ogije esaten dogu et j on agots dunduriduna ta gozoa da. Giputzak eta curen antzera markiñarrak eta elorriotarrak ezin dabe agoskatu agots on. Eurak ogixe edo ogixa esango dabe.

Gaiñera, ez deritxazue aita baiño askoz gozoagoa dala aitte edo aitxe? Eta ez aitzu olako aldakuntzak itz asko eta askotan egiten dauzata gure euskereak.

Agoskatze orretan gure euskereak lege ziur batzuk beteten

dauz iñoz be utsik egin barik, toki baxotxean bertakoak, eta olako jokabidea jakiturizkoa da. Munduko jakitunak orretan gauza arrigarriak ikusten dabez gure euskeran. Jazokizun bat edestuko dot. Deustu'ko Ikastetxe Nagusian ikasten niarduala, Olanda'ko ikuntzalari bat etorri zan gure euskereari buruz itzaldi bat emoten. Ondarroa'ko euskereari buruz egin eban berba eta itzaldiaren muiña ez zan izan besterik agoskatze onein lege ziurrak agertzea baiño. Ortik artu neban nik gaia neure maitxu-lan txikia, tesina, egiteko eta benetan pozik ibilli nintzan erriaren jakituriaren legeak aurkitzen. Karmele Rotaetxe izan zan aldi aretan Deustu'ko Ikastetxe Nagusian eta berau be entzule izan zan itzaldi aretan. Gero Maixu-lan Nagusia (Tesis) egin eban Ondarroa'ko euskereari buruz. Benetan jakituri aundi bat dago or eta guk sarritan uste izaten dogu agoskatze orreik gauza txarra dirala, alboratu egin bear dirala. Ez. Gauza ona dira eta eutsi egin bear jake, irakasle batek esan eustan lez, zenbat edertasun galtzen dauan euske-reak "batua" sortzeko bizkaieraren bereizitasunak aide bate-ara izten diralako!

Baiña ba-ditu ondoren txarrak be agoskatze bereizi onek, laburpenai buruz dan itzaldian esaten dogun lez: Euskerea uler-gaitz biurtzen da. bai Bizkai-barruan (esaterako Ondarroako bat eta Arratiako bat alkartzen diranean). Alkar ulertu arren be, agoskatze orreik ba-dira oztopo apur bat. Baiña askoz geiago beste euskalki batekoakaz berba egiten dogu-anean. Egun batzuk alkarragaz egon ondoren sortzen da erreztasun apur bat. baiña ba-da eragozpen bat.

Euskerearentzat, gaiñera, arrisku bat dira agoskatze orreik. Ikusi daigun latina zergaitik galdu zan: Aginterrri zabal aretan leku bakoitxean era batera berba egiten zalako, eta urteen joanean, latinkumeak sortu ziran eta ezin eben alkar ulertu, esaterako frantzetarrak eta espanatarrak. Ez ete dira sortuko euskerakumeak eta euskerea galdu? Ala umeengan bizi izango da euskerea?

Zer egin bear dogun

Ez gaitez lanregi itsutu gure euskerearen bereizitasun oneikaz eta ez daiguzan oso-osoa alboratu. Era bi orreitara kalte egingo geunskio euskereari. Berba egiten dogunean beti kontuan artu daigun aurrean nortzuk daukaguzan.

Etxekoen eta errikoen aurrean berba egiten dogunean, egin daigun bertako berbetea, bereizitasun guztiakaz. Bizkaiera idatzia or egiten ba-dogu arro-putzak garala esango dabe gure senideak edo auzokoak. Dana dala. beti sartzen dogu. nai ta nai ez, ezbarditasunen bat. Ez jat aiztuten zelako mina artu neban neure amak gipozkoeraz egiten dodala berba esan eustan baten. Ez zan egia, nik bizkaieraz eta etxeko izkeraz egiten neban, baiña berak nire berbetan aldakuntza batzuk ikusten eban.

Gure aurrean dagozanak beste euskalki batekoak diranean, esaterako giputzak, ez daigun pipuzkoeraz egin, orrelan ez leukee iñoz be bizkaiera ikasiko, baiña ez gure etxeko edo erriko bizkaiera be. ulergaitz biurtuko jake-ta. Egin daigun Bizkai'ko euskera apaindua. ondo agoskatua, eta erreztasun ulertu-ko dauskue.

Erri-aurrean berba egiten dogunean, edo ETB'n gagoz-anean edo idazterakoan, erabilli daigun beti bizkaiera apaindua. Ez Gipuzkoa'koa eta ez batua, ez da bear olakorik.

Azterketea

Eta orain, amaitzeko, aztertu daigun Bermeo'ko euskeraz

dagon idatz-zati bat eta aurkitu daiguzan agozkera bereiziak:

—Ene semie! auri da noperak baiño gei jau jakin gurie! Tick dako erru guztije; baie ikusko dau arek ondiño... ie nok etxen-tson arenadurie bera geisorik dauenien. Topa birko dau nok eiñ beti-beti neure kontra oteko.

—Zeure mando oten dala ezu esan urrenguan ba?

—Bai, berari komeniten jakonien. Aurduen be... imie jagoten oki nau ni arek. geueko zortziretararte. frabiketik (ben) otorri arte.

Agoskatze bereiziak: semie, noperak, geijau, gurie, Tiek. dako, guztije, baie, ie, etxen, arenadurie, dauenien, eiñ, oteko, mando, oten, urrenguan, jakonien, aurduen, imie, oki, geueko. frabiketik, otorri.

Bizkaieraz:

Ene semea! Ara. on da norberak baiño geiago jakin gurea! Tiak dauko erru guztia, baiña ikusiko dau arek oraindiño, ea nok egiten dautson arenadurea bera gaisorik dagoanean. Topau bearko dau nok egin, beti-beti neure kontra egoteko.

Zeure bando egoten dala beti ez dozu esan urrenguan ba?

Bai berari konbeniten jakonean. Ara, orduan be umea jagoten euki nau ni arek gaueko zortxiretara arte, fabriketik bera etorri arte.

OLAZAR MARTIN

EUSKERAREN SOIÑUA

Aritz artian dabil kantari euskaldun urretxindorra abotzez zoli belarri onez berezko mutil jatorra: mendiak ernai daukaz entzuten itzen soiñu ameskorra izadi china gora goraka agertzen da ezilkorra.

Bene benetan euskal izkuntza ederra da soiñuetan, batian sendo bestian bigun belarri atsegiñetan' berezko doia ezarri eutsen arbasoak antxiñetan, geroztik beti. undu zaindu da Bizkaiaera aosketan.

Bizkai guztia esnatu zaite lo zorro illunetatik bitxi eder bat daukagu deika bere biotz barrenetik; Bizkai izkuntzak egiten gaitu Bizkai seme lendanetik erri eder bat izkuntz txukunez guztion arte sorturik.

Abestitxo bat esan nai nuke euskeraren izenean bost egunetan etorri zaree izkuntzaren euskeraren omenean; egi egitan esan dozue maite dogu biotzean munduak daukan izkuntz ederra ele guztien artean.

PAULIN

ARGIUNEAK

Anton D'Abbadie



- Dublin'en jaio, 1810, eta Paris'en il 1897.
- Irlandarra zan, beraz?
- Aita eban euskalduna eta ama irlandarra.
- Ibiltaria zan gizona, esaten dabenez.
- Amar urterekin etorri zan euskal Pirenée mendietara.
- Eta, amabost urterekin, 1835'ean, etorri zan berriro, Eskozia eta Ingalaterran zear, Eus-

kalerri'ra eta ibillaldi arren gomutaz idatzi eban *Pen-sées, études et voyages de 1835'* idaztiñoa. Oraintxen argitaratu dau EUSKO-**IKASKUNTZA** taldeak.

- Zienzi arazoetan oso jakintsua omen zan; baña, euskerari buruz, zer?

- Brasil'etik Egipto'raiñoako bideak egin zituen zientzietan murgildurik eta 1851 urtean asi zan Euskal-erri'an, Urruñe'n lenengoz eta gero beste lurralde guztietan, pelota eta bertso jokoak urteero sortzen. Lan guzti aien bertso-kopurua, atera berri dau EUSKO-**IKASKUNTZA** k.

- Zer izen imiñi dautso liburuari?

- Auxen: "ANTON ABADIAREN KOPLARIEN GUDUAK. BERTSO ETA AIRE ZENBAITEN BILDUMA: 1851-1897". Jauregi eder bat ere egin eban Hendaia'n, itsaso zabalaren aurrez-aurre.

- Eta, zer egin zuen jauregi arekin?

- `Academie des Sciences de France'ri emon baldintza onekin: Abbadi familiak egin ebana Euskeraren aide, eurok egitea. Ez dabe sekulan baldintza on bete.

(ASMOZ ETA JAKITEZ. Eusko-Ikaskuntza. 1997. 9n. Zenbakia. Abendua).

Julian Butron, Errigoiti'ko `Santutzua'

- 1901'ean it zan Portugal'eko Vila Chá da Beira errixkan.

- Nundik dago erri txiki ori?

- Oporto'tik 90 kilometrora: angoo San Antonio'ren ermita batean eortzi eben eta antxen dago gorputza

osorik.

- Zenbat urte eukazan il zanean?

- 27 urte eukazan; gaztea oraindik, orregaitik esango deutsoe `Santutxu'.

- Abadea zan, ala zer?

- Praille-abadea zan; amabi urterekin sartu zan Balmaseda'n Prailleek eukien komentu batean eta abade egin eben 1899'garren urtean.

- Eta, 1901'ean il? Bi urte bakarrik abade?

- 27 urterekin il zan, 1874'ko Otsaillaren 7'an jaio zalako. Bizi-aldia motza; baña, frutu aundikoa. Onegaitik doaz, etenik gabe, kristiñau-moltoak here gorputza ikustera eta eskariak egitera.

- Zelan ikusten dabe lurperatuta ba'dago?

- Atera eben lurpetik eta kristalezko kutxa batean imiñi eben; orregaitik ikusten da gorpua osorik dagoe-la.

- Eta, nundik joaten dira `Santutzua' ikustera?

- Euskadi'tik be asita dagoz, España'tik eta batez be Portugal'etik bertatik.

- Eta, mirari asko egiten dauz.

- Alan esaten dabe; orregaitik doaz ainbeste jende bertara.

- Eta, aren familikotik iñor bizi al da?

- Bai, bizi dira eta aren

illoba Jaime Butron'ek esaten dau ze, aita eta amak baeukiela gogoa gorputz on ikusteko, iñork ez ebalako orrelakorik siñisten.

- Orduan, joan bearko dogu arruntz.



Diabetes Mellitus eta Insulina

- Txo, latin erakusten asi zara, ala zer?


- Odolean azukre geiegi edukitzeari deritxo Diabetes Mellitus.

- Eta, geiegizko on nundik dator?

- Gorputzeko zelula gurtiek bear dabe gozoki mota bat, glukosa, bizi izateko: mogitzeko, berotzeko, indarra izateko.

- Zelan joaten da gozoki on zelula barrura?

- Lan on egin aal izateko gure areak (páncreas) Insulina sortzen dau eta onen laguntzarekin egiten dau zelulak gozokia artu eta bere barnean, erre. Erretze



orretatik sortzen zaigu gorputzeko berotasuna eta indarra. Errekiñak odolak gasotzen ditu eta isuriakin kanpora bota.

—Eta, gure areak insulinarik sortzen ez ba'dau?

—Orduan, gozoki ori, glukosa, odolean pillatzen da eta geiegizko glukosa sortzen zaigu (hipergluzemia).

—Orrela ba'da, diabetes insulina-eza da.

— Arrazoi dozu eta gaitz orrek erremedio eskasa dau. Andik aurrera insulina artu bearko dozu beti, gozoki gutxi jan eta asko ibilli, gaiñezko azukre orrek erre aal izateko.

Aizken lerrokoak

—Erroma'n izan dogu, joandan urtearen aizkenean, Gotzaien Bilketa, Sinodoa.

—Bai, Aita Santua buru zutela.

—Aita Santu buru eta lenego lerroan Kardenalak. Ondorengo lerroan Gongotzaiak, Arzobispoak.

—Jakiña, gero Gotzaiak.

—Atzerako lerroan, gotzai ez ziren, laguntzaille eta konseju-emaille. Aizkeneko lerroan, emakume gai-xoak.

—Baña, lenego eser-lekua emakumeari eskeiñi bear zaiola erakutsi digute beti... Orixen da ejenplo ederra.

—Bai, badakizu zer esaten duen Jesus'ek; Aizkenak izango dirala lenen; beste aldetik, berriz, ondo hegira-tu ezkerro, beltzez eta purpuraz osatutako talde eder aretan, ez litzazke ondo etorriko aurretik, jantzi mimi-ri-mamarra aiek, emakumezkoenak, alegia, ez eta kolore askoetako txima luze edo motz aiek.

—Toki ederrean uzten dituzu Gotzaiak!

—Bear ba'da, Gotzaiak be feminismoan sartunda egongo dira eta badakizu, gaur eguneroko 'feminak', gizonetzkoen neurrian nai dute euren burua... eta on orrela ba'da, ez dau ezerk agintzen eser-lekua andraz-koari lagatzea.

BARTOLO ARROPAINGO

/ SYNOP of 6iSHoP51



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear
Bahia aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

BERROGETA AMAR URTE DIRA (KANTA ZAARRAK)

Bai, berrogeta amar urte egin-egiñak oraintsu bete dira, nik ondotxo ezagutu neban gizon bat it zala: 29-abendua-1947.

Gizon arexen omenez gura neuke idazlantxo au argi-tara ekarri, aren bizitzaldiko alderdi/zertzelada batzuk agirian ezarririk, norbaitentzat jakingarri izan daiteke-zala eta.

EUSKALDUN/FEDEDUN euskal giza-izakera edo mota bikoitzaren eredugarri eta adierazgarritzat artu daikegula bera, emoten dau.

– Euskaltzaletasuna.

Erlijiñozaletasuna.

Kantazaletasuna.

– Umore aundikoa eta edonori adarra joteko gai zana.

Orra idazkun onetan banan eta labor-labor arildu gura neukezan gizon aren bizitzako adigarri batzuk.

Euskaltzaletasuna

Ezin aundiagoa izan zan. Ona ainbat agerbide.

Izan zan azken mendean –XIX garren gizaldian-zear euskerazko liburu bat Euskal Erriko etxe eta familietan eten barik irakurria izan zana, leen eta orain euskal familietan geien-geienik erabilia izan ei zan euskal liburua. nik nonbaiten entzun edo irakurri dodanez. Izena auxe: ITUN ZARREKO ETA BERRIKO KONDAIRA, Frantzizko Lardizabal, Zaldibiko abadeak idatziriko.

Gipuzkoako Zaldibi erriak izen aundiko idazle bi sortu zituan euskeraren onerako, joandako azken gizaldiaren erdi aldera: bata, aitaturiko Lardizabal, eta bestea, Iztueta, 1767 jaioa, biok garaikideak eta idazle bikain eta on-onak. Iztuetak GIPUZKOAKO KONDAIRA eritxan liburu entzutetsua idatzi eta argitaratu eban, besteak beste.

Idazlan onetara aiputan dakardan gizon arek Lardizabal idazlearen liburua irakurri oi eban sarri-sarri bere etxeko eskaratzean, inoiz abots zoliz eta ozenez, eskaratzean ziran beste guztiak entzun egien. Batez be, uda-goien/negu aldiaren egiten eban irakurtaldia, eguna laburra eta gaua luzea izaten dan aldikada orretan.

Oraindiño ikusten nagoala dirudit Lardizabalen liburu lodikotea, narruzko azal ederrez apaindua, eskuetan zabaldurik, eskaratzeko sugarraren argitara, irakurri eta

irakurri egiten, orain ixil-ixillik beretzako, geroago ots zoliz bertan ziran etxekoentzako.

Bazan etxe aretan mutiko txiki-txiki bat, familiako txikiena, begiak zabal-zabalik aitari begira-begira jarrita, zirkiñik egin barik, eta belarriak ondotxo edegita, adi-adi, beste izkuntza arrotzetan ezer baiño leenago, here jatorrizko berbakuntza ederrean liburuak ekazan kontakizunak entzuten zituana.

Orduantxe erne eta garatu jakon mutiko ari bere kolko barrenean euskerarenganako makurtasun eta zaletasun bizia eta sendoa, gero etorkizuneko gizaldietan zear gutxituko ez jakona.

Orra argibide bat familiak here atal diran seme-alabengan daukan eragin sakon-sarkorra egiaztuteko, "etxean zer ikusi, axe ikasi", esaerak diñoanez.

Gizon arek baebazan arreba bi etxetik eta erritik urrun xamar, eta noizean bein eskutiz/gutuntxoren bat idazten eutsen eurai etxeko guztien izenean eta bertako barri emonez. Eskutitzaren buruan beti-beti eta utsik egin barik, auxe idatziko eban izki/letra aunditan: GEURE EUSKERA EDERRIEN, eta gero dan-dana euskeraz idatzi.

Gure gizon au ez zan kultura arloan jakite zabalekoa. Ez eban inongo ikastetxe nagusitan ezelango ikastaldi berezirik egin. Alan eta guzti be, leen maillako edo oi-narrizko jakinkizunetan –erriko eskolan ikasi ebana besterik ez?– naiko polito jantzita agertzen zan, batez be, euskerari egokionez.

Esakuntza au zelan ulertu daiteken? Gorago aitaturiko Lardizabal idazlearen frutu izan zeitekean. Zenbat bidar irakurri ete eban aren euskerazko liburu mardula? Batek badaki!! Zati osoak buruz ekizan eta.... Irakurriaren irakurriaz eta eskuetako atzamarrak orrietan erabiliaren erabilliaz orriok on-ori eginda eta naiko zikinduta eukazan. Azkenengo gerrate zitala etorri arte iraun eban etxean liburu arek, eta gerraldi aretan galdu zan.

Gerotxoago be, lan onetan bertan etorriko dira gizon aren euskal joera eta griña adierazoten daben agergerri batzuk.

Erlijiñozaletasuna

Gizon aren bizitzearen bigarren alderdia –oso garrantzizkoa berau–erlijiñotasuna da, au da, Jainkoagazko eta Elizeagazko leialtasuna edo, beste berba batez, fede-trinkotasuna esan daikeguna.

Sekular edo laiko uts izateko, a tango fededun gizonik gutxi-gutxi, ene eritxiz. Ez diñot a besteko gizon jainkotiar eta eleiztar zintzo besterik ez danik, urri-urri aurkituko dirala baiño.

Baieztasun onen eusgarri eta sinisgarri, beioaz zenbait adibide.

Domeka eta jai-egunik geienetan meza bi entzuten zituan. Bera bizi izan zan erritxotik albora, ur-urrean, beste erri aundiago batera joaten zan, eta erri aretako eleiza nagusi ederrean amarretako meza nagusian esku-artuko eban entzule, ikasle eta kantari asperbage. Badakigu aldi aretan errietako meza nagusiak iraun egiten ebena: kantuak, berbaldi luzea... Amarretako meza nagusi amaikak arte edo luzetuko zan erri aretan.

Urrengo, eleiza aretan bertan, beste meza bat izaten zan, amaika t'erdietakoa, orduan esaten zan modura, meza ixilla, ez abestua, meza bitartean predikari batek kristiñau-ikasbideko ataltxoren bat jendetaldeari azaltzen eutsala. Meza axe izan oi zan jendetsuena, batez be, berantiarrak –artzaiñak eta abar– ospakizun aretaraxe joaten ziralako. Gure gizon onek ez eban utsik egingo meza aretara.

Ondoren, gizona bere etxera joango zan arin-arin, eta bazkari bitartean –batzuetan beiñik-bein– bere familiaren aurrean predikari egiñez, entzun ebazan berbaldi bietan sermolariak erabilliriko fedegaien eta beste jakin-gaien laburpen bat egingo eban, bere familikoen ikasbiderako.

Arratsaldean, irurak aldera, besperak eta arrastiko elizkizuna erriko elizan bertan. Gure gizona antxe sintzo-zintzo, geienetan beintzat.

Elizako ospakizuna amaitukeran, erriko tabernan sartu-urte txo bat egitea guztiz gogoko izaten eban, erriko lagunakaz berba egiteko, eurakaz musalditxo bat jokatzeke, kantu batzuk kantatzeko, ezer barririk bazan jakiteko, illunkeran etxera joan aurretik.

Eta onelantxe urteetan eta urteetan.

Gizon a bizi zan etxea eta familia "elizatxo baten" antzekoa zala zirudian urteetan zear.

Era batera, kantuzale amorratua zanez gem, batez be eleiz-kantuzale –zertzelada au gerotxoago aztertuko dogu– aldian aldiko eleiz-kantak urte guztian zear entzuten ziran etxe aretan: abendu eta gabon-aldian, gabon-kantak: garizuma-aldian, damu eta Kristoren nekaldiko kantak: maiatzean Ama Birjiñarenak; bagillean Jesusen Biotzarenak, eta abar, eta abar.

Abendu-aldiko leenengo egunean asiko ziran etxe aretan gabon-kantak kantatzen, eta egunero-egunero saio edo ekitaldia egingo eben, iñoiz luzea be bai, familiako geientsuenak abestu eta abestu. Eta au gorago aituriko Lardizabal zaldibitar idazlearen liburutik irakurtaldia eginda gero.

Urrengo, garizuma-aldia etorriko zan laster.

Aldi aretan damu-kantak eta Kristoren nekaldi/pasiñoari egokiozanak izango ziran etxe aretan entzuten ziran abestiak.

Izan zan amazortzigarren gizaldian jesuita euskaltzale bat, Lekeitio ondoko Izpazter errikoa semez, gure Salbatzaillearen nekaldia izan zala eta, bertso guztiz entzungarriak ondu zituana. Beraren izena BASTERRE-TXEA, AGUSTIN (1700-1761).

Autore oni buruz auxe diño Karmelo Etxenagusia jailnak: "Gure kristau erriak buruz jakin ditu eta sarritan abestu JESUKRISTO GURE JAUNAREN PASINOIA urkultzen deuskuen bertso ederrok, maminez eta teknikaz gogoanganiak" (Karmelo Etxenagusia.- EUSKAL IDAZLEAK BIZKAIERAZ.- LABAYRU IKASTEGIA, 1980, Bilbo, 75 orri.).

Aiputan darabildan gizon arek Basterretxearen Kristoren nekaldiari buruzko bertsook buruz ekizan danak edo geienak, eta garizuma-aldiko eta batez be Aste Santuko egunetan, bera gidari zala, familiakoen artean abestuko ziran. Bertsook, batzuk beintzat, gure egunotan be entzuten dira Bizkaian. Gautegiz-Arteagan, esate baterako, urtero-urtero, Bariku Gurenez, arratsas aldeko elizkizunean, Nekaldi/Pasiñoa irakurri aurretik, erri osoak onan abesten dau:

"Jesukristori kendu ezker
pekatuakaz bizitza,
baldin ezpadot negar egiten,
arriakua dot biotza,
guztioak lagun,
kanta dagigun
bere penazko eriotza"

(Basterretxea jesuitaren bertsoetariko leen aapaldia)

Urte gutxi-gutxi dala, neuk-neuk entzun eta abestu izan ditut bertsook erriagaz batera Gautegiz-Arteagako eliza ederrean, eta ez urte baten bakarrik, ainbeste urteetan.

Gizon aren etxean errosario santua utsik egin bank errezauko zan afari aurretik edo afari ostean, uda-udan izan ezik. Ia gero iñor, lo-gure dala eta, agurtza esan barik, ogera joan!... Gizona bera izaten zan ardurea artzen ebana.

Jatordu bakoitzaren aurretik, otoiitz auxe esaten eban etxeko nagusiak:

"Gure Jaun eta Jaungoikoa,
gure esperantzia dago Zugan,
emoten dozu bere denporan
jateko bier doguna.
Zure eskuak zabaldu eta
gurtioak benedeziñoiz bete gagizuz".
Gure Aita, Agur Maria, eta Aintza.

ELERTIA

Eleizako legeak zeatz-meatz betetzeko ardurea artzen eban gure gizonak. Orduko garizumea gaurkoa baiño askoz latzagoa izan oi zan. Garizuma-aldi guztian bijilia, asteen iru egunetan barau: eguazten, bariku eta zapatuetan. Barau-egunetan barau: eguazten, bariku eta zapatuetan. Barau-egunetan egunean jatordu bat egiten zan, goizetan zerbait arin-arin eta gauez afari antzeko utsa arturik. Gure gizonak ezebe-ezebe artu bank egiten eban barau beti, eguerdiko bazkarira arte, etxeko edo soloko bearrak egunoro lez egiñez, jakiña. Eta bazkaritan txarriki bagako lapikokoa, orio-tanta batzuez zerbait gozatua, eta gero sagar erreak... Egunoroko eta urteoroko biziera garizuman.

Gizon arek bere familian katekesi-emoille be egiten eban. Gorago aitaturiko mutikoari ber-berak irakatsi eutsazan kristiñau-ikasbideko asikiñak: Gurutze santuaren, Gure Aita. Agur Maria, Jesukristo gure Jauna, eta abar, eta abar... Gauero-gauero, mutikotxoa bere belaun gaiñetan ipiñi, eta irakatsi eta irakatsi. Leenengo autor-tza egiteko berak irakatsi eutsan aurretik esateko otoitza, eta mutiko arek, aundi-aundi eginda gero be, autortu bear eban guztietan, txikitan aita erakatsiriko otoiz/oraziño axe esaten eban.

Guzti au azaleko erlijiñokera izan daitekela? Bai, onantxe da, baiña gizon arengan azal utsezko fede-bizikera baiño askoz geiago zana begibistan daukagu. Dakardan, bai, egia au agerrazoten dauan aren bizitzako jazokizuntxo bat.

1936- arreneko urtea zan, gerrate galgarria lertu zanekoa.⁸ Gerrea asi eta beingoan gizon a bizi zan erria eta inguru guztia, burruka-lekutik ber-bertan bizi zirako, beste erri batzutatik etorritako jendez bete zan, eta etxe baktxean bost, sei, edo geiako artu bearra izan zan gaua egiteko. Gizon aren etxean be bai, besteetan legez. Etorri zan jende-moltzo aretatik danetariakoak ziran: erlijiñodunak, erlijiño bakoak, Jainkorik badanik ukatzen ebenak, elizaren areno aundiak, eta abar.

Kanpotik etorritako batzuk gizon aregaz eztabaidak izaten zituezan kristau-fedea zala eta ez zala. Gizon a, barriz, bere sinistean gogor eta sutsu, iñoren bildurrik bank eta edonoren aurrean. Eta on egun baten, eta urrengoan eta urrengoan... Etxekoak apur bat, edo apur bat baiño geiago, bildurru egin ziran, gizonari okerren bat letorkiokela eta. Izan be, egun arek ez ziran txantxetakoak edo olgetan ibiltekoak erlijiñoari gagokiozala, arriskugarriak baiño. Eta etxekoak euren bildurra agertu egin eutsoen etxeko nagusiari, kontuz ibilteko alako jende moduaz, jaramonik be ez egiteko, edozein gauza egin legikeela eta... Gizonaren erantzuna auxe izan zan: "Nik ez daukat lotsarik, ez bildurrik edozeiñen aurrean neure fedea agertzeko eta autortzeko. Eta zer? II egin nagikeela? eta zer dago ederragirik eta aundiagorik fedegaitik

iltea baiño?" Etxeko guztiak zurtz eginda eta berba bank gelditu ziran.

Kanta zaletasuna

Alderdi au aaztu eta alboratu eziñekoa da, gizon aren mundu onetako bizitzea izan zan bestean. ulertu aal izateko.

Ez dakit nork esan eban onoko au: "Euskal Erria Auñamendietako aide bietan dantzari eta kantari bizi dan erria" dala, edo onango zerbait. Esankizun au oso-osorik eta bete-betean gauzatu zan gizon aren bizitzaldi guztian. Ez da oraidiño egun asko gure gizon au ezagutu eban auzokide bategaz berbetan niarduala. Eta auxe esaten eustan: "Beti kantetan, beti kantetan bizi izan zan gizona".

Gizon beraren seme batek badiñotso bein: "Aitte!, zu beti kantetan zagoz!" Eta berak erantzun: "Bai, ni il be kantetan egingo nok!".

Gizon aren giza-izakera alai eta jendeartekotasuna kontutan artu dagizanak, gaztetan dantzari aspertu-eziña izango zala, errez ikusiko dau. Baiña gore egunotan be ezagutu eben askok kantari aparte-apartekoa izan zala begibistan daukoe eta ao batez autortuko leukee. Ez aren abots ederragaitik, ez. Abots arrunta eukan, ez ona, ez txarra, bien bitartekoa. Ori bai, abesteko gaitasuna edo "belarria" oso ona.

Era guztietako kantak ekizan, moltzoka edo pilloka jakin be: eleiz-kantak, irri eta barre egitekoak, maite-kantak, zirri-kantak, kanta zaarrak, barriak, berba batez, danetariakoak.

Zein "iturritan" egin ete zituan "ur-zurrutadak" aren-besteko abesti-kopurua lortzeko?

Ituririk garrantzizkoena aurretikoengandik aoz-ao esku-aldaturiko kantuak izan ziran, zalantzarik baga.

Bigarren "iturria" -ugaria au be- azoka egunetan garai aretan eurrez saltzen ziran bertso-paperak: Urkiolan San Antonio egunez, Abadiñon San Blas egunez, eta inguruko beste feri-egunetan saltzen ziranak. Iñun bertso-paperik ikusten baeban gizon arek erosiko eban, eta etxera eroan eta abestu.

Beti kantetan? Ba, bai, beti kantetan!!

Goizean goiz —bost terdietan edo seiretan jagita-etxeko zeregiñak egiteko, goitik beera joaten zanean, kantetan eta kantetan jatsiko zan, abots zoliz eta ozenez kantetan, familiako beste guztiak oge goxoan lo, erdi-lo edo erdi-itxarturik, egozala.

Zer kantetan? Geien-geienetan, bertso oneexek:

"Aingeru batek Marian diñotso "Graziaz bete",
Jaungoikoaren Semeari emongo tsazu sortzea.

Goiz, arrats eta eguerditan,
Ama, goستن زائتوگۇ،
اينگىرۇارەن ئىزەك بەرەك
گۇك بەر-ەساتەن دىتۇگۇ.

جاونگوئوگۇارەن ناي سانتۇا،
نىگان دەدىللا ەگىنا،
ىزان نادىن، باي، بەرە اما،
باينا گەلدىتۇز بىرچىنا.
Goiz, arrats eta eguerditan...

جاونگوئوگۇارەن سەمە مايتەا،
گىزاتاسۇنەز دا جازتەن،
ئو، ئونتان سۇرەباكوال،
جاونا گۇرەكىن ەگوتەن.

Goiz, arrats eta eguerditan...

Dakusgunez, "Angelus" edo "avemarietako" kantu ezagun-ezagunak orduan eta orain.

Soloan naiz beste nonbaiten goizalde guztian bear eta bear egin ostean, eguerdiko jatordurako etorkeran, etxe-ko txokotxo baten orman kokaturik euken Jesusen Biotzaren irudi aurrean geldi-unetxo bat sarri-sarri egingo eban, eta etxeke beste norbaiti deitu eta bion artean urrengo kantutxu auxe abestuko:

"O, Biotz gozo Jesusena,
gure biotzen gozamina,
Jesus onaren Biotz ona,
erruki zaitez gutzaz, Jauna.
Ainbesteraño nozu maite,
Biotza eskaintzen ortxe zaude,
Jesus maitea, bai, ni ere,
Zuri eskaiñi nai nizuke.
O, Biotz gozo...

Gabaz, afari aurretik, kantaldiren bat ez zan faltako etxe aretan, udan izan ezik, aldi aldi abestiren bat.

Gizon aren kantazaletasuna eta batez be, ainbeste kanta ekizan otsa, ez zan erri eta inguru aretako mugen barruan gelditu, beste errietara gutxi-asko zabaldu zan.

Urte areetan, eta askoz leenago be bai, Resurrección M.º- Azkue jauna erririk erri eta bazterrik bazter ibilli oi zan eten barik antxiñateko euskal kultur-aztarnen bila: bertso, ipuin zaar, eta abar. Gizon a bizi zan erritxoan be izan zan bi bider gutxienez, eta beragaz berbetaldiak izan ebazan. Azkenengoz etorri zanean –gerrate aurretxoan izan zan– neuk lagundu neuntsan Azkue aundiari gure gizonaren etxera, eta neure aurrean artu eutsazan kanta batzuk, musika eta guzti.

Gizon arek baeban Gasteizko Abadegaitegian abade-tzarako ikasten ziarduan seme bat, eta Jose Migel Barandiaran jaunak, gero euskal kultur alorrean jakintsu

ospetsu izango eta gaztearen irakaslea zanak, ikasturte aretako opor-aldia urreratukeran -1936 garreneko udea zan– bere ikasle zan gazteari, eginkizun auxe ezairi eutsan: uda-aldian beraren aitak ekizan kantu eta ipuin zaar guztiak batzeko, langintza guztia erriko euskeran idatzirik, eta urrengo ikasturtearen asikeran D. Jose Migel berari eroateko. Gazteak baietz erantzun eutsan irakasleari, gogoz, arretaz eta pozik egingo ebala izen-tauriko lana.

Gaztea oporretarako etxeratukeran, berealako baten asi zan lanean, eta zati on bat be egin eban, aal izan eban bitartean. Ona emen gutxi gora-beera aitari artu eutsan moltzoa: bi milla (2.000) bertso, eta berrogei (40) ipuin zaar. Kantuei egokienez, beste arenbeste edo jasotzeko gelditu jakozalako ustea eban. Zoritxarrez, baiña, lana asi eta andik egun gutxitara, anaiarteko gerra galgarria asi zan, eta gaztea bera be gudari eroana izan zan, eta iru ikasturte galdurik, gerratea amaitu eta etxeratu zanean, Jose Migel Barandiaran jaunaren aginduz idatzitako kuaderno areek, gerrate aurrean etxean gelditu ziranak, etxe guztia zeatz arakatu arren, ez ziran inun be agertu. Galtze negargarria!!

Euskal Errian izan ei zan leengo gizaldietan auzoki-deak, bata-besteagaz alkaturik, batera lan egiteko oitua. Onetarikoa izan ei zan, esaterako, laiaketa, arta-zuriketa, eta abar. Batean auzoko etxe baten batzen ei ziran, urrengoan beste baten... Nik-neuk ez dot ezagutu onan Ian egiteko erarik. Baiña, bai ezagutu dot gizon aren etxean egiten zan arta-zuriketa, familia guztiak edo geien-geienak esku-artzen ebela. Bear eta bear egiñez, ekitaldi luze xamarra izan oi zan batzuetan. Eta lanaldia zerbait gozatzeko, etxeke nagusiak utsik egiten ez eban era bat ekian: abestu eta abestu, Ian egiten eben bitartean.

Bazan garai aretan eta etxe aretan biotz-unkigarri eta dardaragarri izan oi zan bertso zail bat, lanaldia arintzeko guztiz egokia zana, ainbeste aapaldi zituana, eta nik, zoritxarrez, aaztuta daukadazana, zatiren batzuk izan ezik. Leenengo aapaldia, orraitiaño, gogoan daukat, eta ementxe iminten dot:

"Konformaturik nenguan
neskatxa batekin
ezkonduko giñala
biok alkarrekin;
nik arekin uste ta
ark beste batekin?
Orain pagatuko dau
bere biziakin".

Esan eta egin. Gau batez, bekaizkeriz erreta, senar-emazte gazte bien etxera ez-ustez joanda, biak il zituan, eta urrengo egunetan, gaizkillea arrapatu guran ebiltzan

ELERTIA

erri-jagoletariko batzuk be bai. Baiña artu eben atxillo eta aldikada bat presondegian eragin ondoren, urkamen-dian urkatu eben, jendetalde aundi bat ikusle eta lekuko zalarik. Jazokizun orrexen kontakizuna da aipaturiko bertso biotz-ziragarrian mamiña, bertsolari on eta zorrotz batek egokiturikoak. Era onetan, ordu biko edo lan-ekitaldia ordu laurenekoa lez egiten jaken beargiñai.

Umore aundikoa eta edonori adarra joteko gai zana.

Ataltxo au argitzeko, zillegi izan bekit gizonaren bizi-tzako gertakaritxo bat argitara ekarte.

Ez uste izan gure gizon au ugaritasunetan eta aberas-tasunetan leporaiño murgildurik bizi izan zanik. Bai zera! Bear eta bear egin bear izan eban, gogor eta eten bank egin be, bere bost seme-alabako familia aurrera atarateko. Neketan, izerditan, aalegiñetan, eziñetan, eta Mikel Zarate aaztu-eziñekoak esango leukenez, "aurgin-tza minetan", bizi zan, etxaguna izan arren, bere bizitzal-di guztian, etxeko aurretikoren okerrak leporatu bearra eta zorrai erantzun bearra be suertatu jakon eta.

Alan eta guzti be, ez eban umorerik galtzen, eta ez jakon berari jendeartekotasuna gutxitzen.

Goizetan, etxeko guztiak katillukada on bat kafesne edo artzen eben bitartean, berak salda-zopak izango zituan baraua austeko bidea. Urari irakin eragin, katillu bat puntaraiño bete, orio-tantakatxu batzuk bota, ogi-zati aundiz ia gaiñez eragin, eta orra arentzat barau-austekoa prest. Egundo be ez neban ikusi beste ezer artzen goize-tan. Bai, ba, esnea saldu egin bear zan etal...

Eta egun batez, katillu aundi batetik zurrutadaka eda-ten ziarduala, badiñotso bat-batean bere andreari:

— "Alejandra! Nun ikasi dozu ain zopa gozue egiten? Balekie aundikiek zelako zopagiñe zarean, eroango zindukiez euren palazioetara, egunean lau milla erriel pagauta!".

Andreak jaramonik be ez. Ixil-ixillik, bere bearrari ekin eta ekin. Gerotxoago, katillutik beste zurrutada batzuk artuaz, ostera be gizonak:

— "Alejandra! Bahia, baiña, nun ikasi dozu ain zopa eta salda gozuek egiten? Nun, baiña, nun? Esaidazu, esan, jakin egin bear dot eta. Bai, balekie aundikiek zela-ko zopagiñe eta saldagiñe zarean, eroango zindukiez euren etxe dotoretara, eguneko lau milla erreal emon-da". Oraingoan be andreak erantzun be ez, bere zeregi-ñean aurrera. Andik gerotxoago, katilluari azken zurrata-dak egiñez, badiñotso irugarrenez gizonak:

— "Baiña, baiña, Alejandra, Alejandra! Esaidazu, derrigor jakin bear dot eta. Nun eta nun ikasi zenduan ain zopa gozue egiten? Jakin izan balebe aundikiek, jakin, zeñen aparteko salda eta zopagiñe zintzazan, eroango zindukiezan euren palazioetara, ni emen, etxe onetan, bakar-bakarrrik eta triste-tristerik itxita, egun bakotxean lau milla erriel eta erdi pagauta!" Eta alako-ren baten andreak:

— "Ixillik egon zaitez, txotxolo ori! !".

Gure gizona orduantxe pozik, here andreari txantxe-tan apur bat ernegau eragin eutsala eta. Eta barre-santzo baten badoa eskaratzetik solora edo beste bearlekuren batera.

Idazlan au amaitu aurretik, gizon arek abesten ebazan kanta batzuk ekarriko dodaz orriotara: Gabon-kantak eta erregeen kantak, berari entzundakoak eta beragandik ikasitakoak, oartxu auxe egiñez: emen agertzen diranak baiño GEIAGO zirala, batez be, Gabon-kantak. Nik gogoan daukadazak baiño ez dakardaz, guztiz galdu ez daitez.

GABON-KANTAK

I

Abendu santu onetan
Kristoren jaiotzia,
bertsotxo bi kantadu eta
alegere bizitzia.
Iai Maria i Jose,
Jose Maria,
Iai Maria i Jose.

II

Billoxik jaio bazara,
etzara Zu pobria,
zeruan josirik dago
zeuretza errofia.
Iai Maria i Jose

III

Txakillon tronpetero,
lania iruten dago,
gonia egin bear dabela
Gabon-jaietako.
Iai Maria i Jose

IV

Or goien etxe zar bat,
unen kabuan,
is jausien dago,
zarraren puruan.
Iai Maria i Jose

Jakingarriak: Bertsook dirala eta, auxe dirausku Juan San Martinek:

– "Eta beraien antzinatiko sustraiak Bizkaiko Otxandio, Arabako Billerle (Legutiano) eta Zigoitia aldean omen".

(Juan San Martin, Euskaltzaindia, Iker-10, Federiko Krukwig-i omenaldia, Bilbo, 1997, 300 orr.).

– Eibar-en be ezagunak el ziran bertsook, zerbait aldaturik.

I

Ogetalugarrena dogu abenduan,
desio genduena logratu genduan,
gabeko amabiak jo daben orduan,
geure Salbadoria jaio da munduan.
Biba, biba, biba, biba, Jose ta Maria,
kontsueloz da gozoz betia.

II

Ai, ze kontsuelua artu bear dogun,
Jaungoikoaren Semia etorri da lagun,
erakutsiko deusku zer egin bear dogun,
beraren alabantzan kantadu dagigun.
Biba, biba, biba, biba...

III

Belengo portalian estalpe batian,
jaio da Jesus umil ganadu artian,
astoa ta idia dauzka aldamenian,
arnasez berotzeko oztuten danian.
Biba, biba, biba, biba...

Bedeinka gerta deilla,
sekula betiko,
jai() dan Sein ederra,
Gizon da Jaungoiko,
bakian ifinteko
Iurra ta zerua,
Jaungoiko ta gizona,
gizon da aingerua.

Zelan zu emen, al zu emen,
zeruko Erregia,
Jesus geure laztana,
Jesus guretzat dana,
dontzella utzirik ama
zu gaur jaio zara.

Ume jaio barri bat
or narru gorrian,
aingeruak kantari
da(g)oz bere aurrean:
"Gloria Jaungoikoari
zeru goienian,
borondate onekoei
bakea lurrian".

Zer egin eta zer jazo da
ainbeste mirariagaz,
zer egin eta zer jazo da
ainbeste zaratagaz,
zeruan zerbait jazo da,
an izan diran zaratakaz.
FI, FI, FI, FI!! UJUJU, JUJU!!!

I

Jesus geure Arbolia,
neguaren erdian,
ekatzaren bildur bage,
oraintxe dago lorain.
Erantzuten alkarreri
klariñakaz da organuakaz,
musika konsagraduakaz.

II

Salomonen tronu orrek
orain dauko famia,
Birjiña Amak besoetan
geure Salbadoria.
Erantzuten alkarreri...

ERREGIEN KANTAK

I

Zeruko Erregia
jaio zan orduan,
munduan:
Hedores erregia,
inbidiaz betia,
bildurtuten asi zan.

II

Herodes erregia,
zerk bildurtu zaitu?
esaizu;
jaio dan Infancia,
zeurorrek il eitia
logratuko ez dozu.

ELERTIA

III

Iru errege datoz
Oriente aldetik,
Belenera;
aurretik dakarrela
argi izar eder bat,
bidia erakustera.

IV

Herodesek dirautse
ainbat preguntegaz,
nora zoaz?;
Jaio dan Infantia,
guztioen Erregia,
adoratzera goaz.

V

Adoratu ezkeru,
emendik erduze,
dirautse;
zerren neuk bere ori,
diñozuen Jaun ori
adoratu nai neuke.

VI

Joan ziran erregiak
izarren atzian,
bidian;
.....
.....
.....

VII

Ofrezietan deutsez
euren presentiak,
nobliak;
batak dakar urria,
beste orrek mirria,
intzentsua bestiak.

VIII

Beste bide batetik
biurtuten dira,
errira;
Herodesen asmuak
eta pentsamentuak
orain burlatu dira.

IX

Herodes burlaturik
gelditu zanian,
goienian;
agindu eban ilteko
ume txiki guztiak
Belengo ziudadian.

X

Ai, ze negarrak diran
orduan Belen-en,
ai, ene!!
amen bularretatik,
errukirik bagarik
daroiez seiñak il eiten.

Jakingarriak. Bertsoon antxiñakotasuna erakusten daben iru aztarna:

- 1.- Zerren berbea euskera zaarrean erabilten zan.
- 2.- Nora zoaz? Zoaz adizkia antxiña askotarikoa zan, plurala, gure egunotan (zuek) zoaze esaldiaren kidea. "El pronombre zu originariamente fue plural... todavía hay pueblos en zu en la conjugación, continúa significando vosotros" (Azkue, Morfología vasca, 1923, Bilbao, 591 orri.)
- 3.- Errukirik bagarik, gure egunotan errukirik barik edo erruki barik esaten da.
- 4.- Ondorenez, noizkoak ete dira Erregenetako bertsook? Nire ustez, gutxien-gutxienez, amazpi-garren gizaldikoak, eta, bearbada, zaarragoak.
- 5.- Orain ururogei urte inguru, bertsook, arabako erri txiki baten, ERREGI-EGUNEZ, elizan, meza nagusi ostean, erri guztiak kantetan ebazan.

Bilbon, urtarrillak 25, 1998.

AGIRREGABIRIA



GURE IZKUNTZA DELA -TA

XABIER KINTANA JAUNARI

ARRAZOIRIK ZERTAN EZ DUN ESANEZ

(Lantxo au, Naparroa'ko Euskeraz dago. Iruña'ko "Diario de Navarra"n argitaratu da, aste biren epean)

I

Baneuken, aspaldi, lerrotxook idazteko gogoia. Baña, bearbada, zuk irakurle, elbatua-zale aundia ez ba'zara, ez duzu gizaseme on nor den jakingo. Elbatua-zaleen artean oso ezaguna den bezala, elbatua-zeleen girotik at, ain gogoan erabillia ez bait da.

Alatagutziz bada norbait Xabier Kintana. Bilbao'n jaioa, Gizon aski gordiña oraindik: berrogei ta amabi urtekoa. Naparroa'ko Unibersitatean "Filosofia y Letras" esan oi zaion jakintzaren barrutian "lizentziatura" irabazia... bera da seguruaski elbatuan aldeko apostoluen artean lanik geiena egin duena. Idatzi ere berak idatzi bait zuen "elbatua"ren ebangelioa, "Batasunaren kutxa" izeneko liburua.

Ainzuzen, Euskaltzaindia zalantzan zebillen egun aietan, elbatua-zaleek, Euskaltzaindiaren aurka, "Batasunaren Kutxa"n zetorren elbatua-ren aide bereala borrokan astea, ziñ-egin zuten! Biona'n aurrena eta Ermu'n gero. "Ermu'ko Juramentua": "el Juramento de ermua" esaten diote borrokara beartzen zituan zinketa orn. Orra or, irakurle, Euskaltzaindiaren aurka amorraturik, gaur Euskaltzaindiaren aide itxuturik agertzen zaizkigun "mutikoak".

Aldaketa ori zergatik? Euskaltzaindiak, amore emanez, "Batasunaren Kutxa"ko elbatua ori onartu zuelako. Obeki esanez, Euskaltzaindia ez baiña beraiek izen ziren, oiuka, deadarka eta karraxika, —orduango Euskaltzaindi'ko Lendakaria zen Lekuona'k idatzi zuen bezala— Arantzazu'ko Batzar zipotz eta zikifi artan elbatua onartuerazi zutenak.

Aida dezat gaia: Bada alditxo bat Kintana'ren idazlan eder bat irakurri nuela. Erderaz zegoan idatzia. Bertan, Armando de Miguel gizartiztilari edo soziologilariari erantzuten zion: onako auxe esan omen zuan bá jaun orrek: "La K es antivasca y la decisión de utilizar esta letra en lugar de la C es una muestra de la barbarie vasca". Erderaz eman dizut ori, zenbateraiñoko astakeria den zerorrek ikusi aal dezazun. Ez zen zalla-ta, ederki agertzen du Kintana'k zerbait "barbarie" izetekotan "K"ren orde "C" erabiltzea izengo litzekela "barbarie".

Ederki dio, baldin Euskerak orrelako ortografi "zientifikoa" ba'du, Sabino Arana'ri eskerak duela. Bai noski! Baña baita Azkue'ri eskerrak ere, Kintana. Eta ori zen Euskaltzaindiak bere-egin zuen ortografia, eta Euskalerriak pozik artu zuena. Orain zuek, Kintana, elbatua-ren bidez ondatu duzutena!

Amaitu zait tokia, bañan jarraituko dut datoren astean. Gaurkoz, agur esan aurretik, galde bat zuri Kintana: Azkue apezka, eta Arana kristau zintzoa izen ziren bezala, Arana Pablo Iglesias baiño sozialista ezkertiarra, eta Azkue idazle erdikomunista ta Martzelino Domingo'ren adiskide izen ba'ziren, sortuko al zenu ten zuek, Arana'ren eta Azkue'ren aurka, zuen "elbatua" ori?

II**BATERE ASARRERIK GABE, AGUR, KINTANA, AGUR
BESTE BAT ARTE**

"Naparroa'ko Egunkaria"ren orri ontan agertu nuen, Xabier, zeinen ederki erantzun ziozun zuk, "C"ren ordez "K" erabiltzen dugulako, ttontto utsak gerala esan zuen Amando de Miguel gizartiztilariari.

Esan zenuen gauza eder geiagorik ere zure idaziantxo artan. Adibidez, nola betirako gure ortografiatik "V" a kendu genuen, emen sekulan "V" rik agoskatu ez delako. Izkuntzarentzat oztopo dan guzia kendu egin bear bait da. Gaztelerak ere, aide batetik "B" ta "V"ren arteko, eta, bestetik, "C", "Z", "K", "Q" izkien arteko nasketa garbituko ba'lu ez lioke izkuntzari batera kalterik egingo. Mintza bitez ikastetxeetako gazteak!

Kemenik askiko gizon bat falta izen zaio Gaztelerari. Euskaldunok, "C"ren ordez "K" erabiltzea bezala, "V"ren ordez beti "B" erabiltzea ere Arana Goiri ta Azkue'ri zor diegu. Ederki esan zenuen baitare, Xabier, gaztelerak oraindik askatu ez duen "J" ta "G"ren arteko korapilloa, Euskerak txukun askaturik daukela. Bai Xabier: ori ere, Arana'ri ta Azkue'ri eskerrak. Gizaundi bi aiek, naiz, maiz politikan bat egiñ ez, Euskeraren aldeko ekintzetan errez etortzen bait ziren batera.

Bañan, Xabier, ez zenuen "H"ari buruz deus esan. soilki, Iparraldekoentzat bakarrik ontzat artu zuela Arana'k "H" a. Azkue'k ere bai, Xabier. Eta guk eta Euskerazaintzak ere bai. Gu ez bait gera iñor aien Euskera "konpondu" naiean asteko. ezta Euskaltzaindia edo Euskerazaintza ere. Ango Euskera


angoena da, ta naikoak dira beraiek ango beren Euskera moldatzeko. Ango Euskeran, gaiñera, agoskatu egiten da "H" a, Laburdieran izen ezik.

Emengo Euskera, ohea, gurea da, eta emengo Euskerak ¡"H" rik ez du!!! Orregatik, barkatu bezaidate "Naparroa'ko Egunkaria"ren orri ontan nerekin lan egiten dutenek, baiñan iñori deus erakusteko asmorik gabe, apalki esan nai diet ematen ditela neri, Orri ontan "H" z idatzitako lanak ikusteak. Nere uste txiroz, Orri ontan guk egin bear duguna, Naparroa'ko Euskera, ots, "Lingua Navarrorum" zarra salbatzea bait da. Ta Naparroa'ko Euskerak ez du sekulan "H" rik izen. Ta den bezalakoa da berriz guk etorkizunerako salbatu bear dugun Naparroa'ko Euskera: "H" rik gabea.


Euskaltzaindiak badu "elbatua" gobernatzeko eskubidea. Berak sortua bait da "elbatua" ori. Iparraldeko Euskera ez da Euskaltzaindiak sortua. Naparroa'ko Euskera ez da Euskaltzaindiak sortua. Ango erriak sortu zuen ango euskera eta ango erritarrena da. Utzi bezaie bá angoei ango Euskera gobernatzen. Utzi bezaigu guri Naparroa'ko au den bezalakoa sabaltzen.

LATIEGI'tar BIXENE

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Biribil gurtietatik, igaro bear dozu, baña bein bat bakarrik. Egingo Dozu?



Saltzaillek kerizpe txarra daukie, baña onek ez, onek bat dauka ona. Zein? Aurkitu zeuk!

S vuadIEzF

~\////////\cIOL\////////\////////\`

~~~~~XN.\N.SNINNN.A.NAN~ ~.■■■%■■■WgW~~~N.N



O I

&\////////\~\|N.W\|N.■\■■%■W\////////\■'\-|////////\N.\N\NCeli\////////\■■■\////////\|~

Marrazki onetan 7 ezbardintasun dagoz.


KARMELE



EUSPMZZ2UZZK

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATÓZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK  
**Bilbao Bizkala Kutxa**

200 pezeta

Depósito Legal: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO